

MUSKIZ ETA ZIERBENAKO UDALERRIETAN PANPA BELARRA KENTZEKO PROGRAMA



PANPA BELARRA

Cortaderia selloana

Jatorriz, **Hego Amerikako** landare bat da. Gaur egun gure lurraldean gehien zabaldu diren **Espezie Exotiko Inbaditzaile**etako bat da.

Hazien bidez hedatzen da. Motots bakoitzak **milaka hazi** ematen ditu, eta **haizeak, urak** eta **ibilgailuek** hazi hauek garraiatzen dituzte 30 km-rainoko distantzietara.



Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Itsasertz-Mugarteak eta Muskiz eta Zierbenako Udalek udalerrri hauetan espezien honen presentzia gutxitzeko programa bat jarri dute martxan.

Helburua biodibertsitate eta paisaiaren **kalteak ekiditea** da, baita Barbadungo Padura eta Areako hondartzako espezien honen **kolonizazioa galaraztea ere**.

Horretarako administrazio hauek panpa belarra **eremu publikoetatik kentzeaz arduratuko dira** (hondartza, ibaiertzak, padurak, mendi publikoak, errepideak, etab.), eta gai honi buruzko aholkularitza eskeiniko diote behar duenari.

EZAGUTU EZAZU LEGEDIA

Panpa belarra (*Cortaderia selloana*) espezien inbaditzaileen katalogoan jasotako espezien bat da (630/2013 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa).

Honek esan nahi du:

- Landare honen aleak edukitzea, garraiatzea, berarekin tratatzen jardutea edo salerostea **debekatuta** dagoela.
- Agintari eskudunek beraien ordezkarietara lursailletara sartzen uzteko eska diezaiekete **lursailen jabeei**, espezien inbaditzaileen presentzia egiaztatzeko, eta behar izanez gero, beraien kontrolerako neurri egokiak hartzeko.
- Lege honetan jasotako debekuak eta mugak ez betetzeak **zigorrak** ekar ditzake (42/2007 Legea, abenduaren 13koa).

ZER EGIN DEZAKEZU ZUK?

Lursailletako jabeek beraien jabetzak espezien inbaditzaile honetaz garbi mantentzeko obligazioa daukate.

Hiritar bezala

- **Informa zaituz** eta lagundu arazoa ezagutzera ematen.
- **Parte hartu** ingurumen erakundeek landare inbaditzaileak kentzeko antolatzen dituzten ekintzetan.

Lursail baten jabe partikular bezala:

- Zaindu zure jabetza eta **azkar jokatu** espezien honen aterik aurkitzen baduzu. Isolatutako landareak modu egokian atera daitezke dokumentu honetan aurkituko dituzun aholkuak jarraituz.

Lursail baten jabe den enpresa bezala:

- Enpresek ere beraien jabetzako lursailak panpa belarrez garbi mantentzeko **betebeharra** daukate.



PANPA BELAR LANDAREAK KENTZEA OSO ERRAZA DA

1. Erabil itzazu eskularruak; ostoeak moztu egiten dute eta.
2. **Landare gazteak eskuz atera itzazu**. Aprobetxatu lurra bustita dagoenean, edo ureztatu lana hasi aurretik landarea errezago ateratzeko.
3. Tamaina erdiko landareentzako erabil ezazu atxur bat.
4. Moztu mototsak agertu bezain laster, eta gorde itzazu poltsa itxietan haziak ez sakabanatzeko. Ez ezazu landarea astindu.
5. Atxurrarekin sustraiak lurpetik atera. Saiatu saitez lurrean sustrai zatirik ez uzten. Landareak pisu handikoak izan daitezke. Sustrai buelta emanda utzi dezakezu (sustraiak gora begira), guztiz lehortu arte.
6. **Jabedun partikular bat bazara, abisatu zure udalari aleak handiegiak badira. Aurrerantzean lursaila garbi mantentzeko konpromezua nahikoa berme izango da.**
7. Zaindu tokia landare inbaditzaile berritara atera ez dadin.

HARREMANETAN JARTZEKO

Muskizko Udala: 94 670 60 00 (114 luzapena)

Zierbenako Udala: 94 636 60 07 (9:00etatik 14:00ak arte)